

BERRIGARA

89. zenbakia

JARDUN ELKARTEA, Bergara


1.992, abenduak 18

**HEMEN
DITUGU
BERRIGARA
URTEKARIA 92
ETA BERRIGARA
GIDA 93**

**EUSKARA
ZERBITZUAK
LOGOTIPO
LEHIAKETA
KONBOKATU DU**

KIROLAK

**LARUNBATEAN
EUSKADIKO
IGERILARI
KONPLETOENA
ERABAKIKO DA
BERGARAKO
IGERILKUETAN**




**"GORDUA"
BERTAN?**

OPEL BERRI ON

ORAINDIK GABON HAUETAKO GAUZARIK ONENA IKUSTEKO ZAUDE: OPEL-en AUKERA ZABALA. HURBIL ZAITEZ ZURE OPEL KONTZESIONARIORA ETA ZEURE BEGIZ. IKUSI: ALAITASUNEZ BETETAKO OPEL FAMILIA. GABON HAUETAN, OPEL BERRI ZORIONTZUAK. OPEL KONTZESIONARI OFIZIALAK, HOBEAK ESPERIENTZIAZ.

TALLERES OLA, S. L.

Olabarrena Auzoa, Zg. 11noak: 76 53 11 / 15 / 16.
BERGARA (Gipuzkoa)
Erakusketan ARRASATEN
Loramendi 2. 11noa: 79 05 86
DEBA ARRO LEINTZ BAIARA
ETA GOJERRI GARAIrako
kontzesionaria

OPEL 

HELDU DIRA !!



BERRIGARA URTEKARIA 92

- Urteko albiste eta pasadizorik nabarmenenak.
- Urteko estatistikak.
- Mahainguruak.
- Bergarako kirol eta kultur talde guztien argazkiak.
- Eritzi artikulua, herriko firma onenen eskutik.

100dik GORA ARGAZKI
1.500 PERTSONATIK GORA


GUZTI HAU ETA GEHIAGO
1000 Pzta.ren TRUKE !!

HERRIKO DENDA ETA
TABERNETAN SALGAI

BERRIGARA GIDA 93

- 68 orrialdetako liburuxka. 3.700 ale.
- Telefono listinaren "orrialde horiak" izenekoaren estilokoa.
- 800 telefono inguru biltzen dituena.
- Agenda neurrikoa.

BERRIGARekin BATERA
ZURE ETXEAN DOAN!!



HEMEN DAUDE !!

BERRIGARA

Argitaratzailea:

Jardun Elkarte

Errotalde Jauregia, 20.570
Bergara

Tfnua eta Faxa: 76 03 97

Babeslea: Bergarako Udala

Laguntzailea:

Eusko Jauriaritza

Erredakzioa

Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil
eta Mikel Elkorobereziabar

Maketazioa:

Eneko Azkarate eta Eduardo
Mendibil

Publizitatea eta harpidetzak:

Alex Azkarate eta Edurne
Arenaza. ☎ 76 03 97

Erredakzio-kontseilua: Iñaki
Eraña, Gorka Elorza eta Alex
Labaen

Kolaboratzaileak: Jose Angel
Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel
Angel Elkorobereziabar, J. M.
Eléxpuru, J. Oregi, A. Urzelai,
Maripi Laskurain, N. Alzela,
Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, M.
Lizarralde, Monika Belastegi, M.
Elkorobereziabar, Aitziber
Aretxaga, Ainhoa Bikuña eta I.
Sorondo.

Argazki laborategia:

B. Cantero, M. Leturia, J.A.
Eguren, J.I. Millan, J. Aguayo, J.
Garzia, D. Santos, P. Retolaza,
Kifur eta Pol-Pol Mendizale
Taldea.

Komikia eta marrazkiak: Josu
Okina eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa: Txantxangorri Taldea

Copyright:


BERRIGARA

Tirada: 3.000 ale

Lege gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako esa-
na eta eritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek
Eusko Jauriaritzako Kultura eta
Turismo sailaren laguntza jaso du

PROTAGONISTAK

IÑAKI LETE

Iñaki Lete Antzuolako alkatea izan dugu aste honetako zoritxarreko protagonista. Asteartean goizeko 4 t'erdietan izandako kotxe istripuan hil zen Iñaki eta bere heriotzak sekulako hutsunea utzi du bere herrian zein kirol munduan.

Iñaki Lete, beste hainbat karguren artean, *Organizaciones Deportivas El Diario Vasco*ko kidea genuen eta txirindulari lasterketen antolaketan (azkenengo *Tourraren* Donostiako irteeran esaterako) lan bikaina burutu izan du azken urteotan.



Hileta elizkizunak asteazken arratsaldean izan ziren Antzuolan. Iñaki Lete Milagos Agirrekin ezkondua zegoen eta 4 seme-alaba zituen. Bere familiarri gure doluminak adierazi nahi dizkiogu. Goian bego Iñaki.

Asteartean kotxe istripuan hil zen Antzuolako alkatea

ITURRI ONETIK

Irizarreko lorategia, urtarrilerako

Irizar Jauregiko lorategia txukuntzeko lanak aurrera doaz eta Gabonak ostean inaguratuko da lorategia ziurrenik. Azken ikutuak egitea besterik ez da falta baina udal agintariek Gabonak pasatu arte itxarongo dute inaguraketa egiteko. Gogoratu lan hauek 7 milioi t'erdi pta. inguruko aurrekontua dutela eta *Construcciones Artzamendi* enpresa dela obraren egilea. Lorategian ez dira zuhaitzak, bankuak, iturria edota argiak faltako.

ESAN DUTE

"Iñaki Lete fenomeno bat zen, txirindulari guztien lagun, nahiz eta desagertutako Kas taldea izan gogokoen. Talde hau osatzen dugun guztiok oraintxe bertan utziko genuke txirindularitza, bera gabe ez baita berdina izango. Irteera, helmuga bakoitzean faltan botako dugu. Iñakik hasitako bidea ez jarraitzea ez ligukela barkatuko jakiteak bakarrik animatzen gaitu aurrera egitera".

ENRIKE ERENTXUN
Org. Deportivas El
Diario Vasco kidea
EL DIARIO VASCO

"Gaur egun Gipuzkoan ez dago gehiengorik EAJ-PSE (PSOE)renaz aparte benetako botere alternatiba gauzatzeko gai izango denik".

VICTORIANO GALLASTEGI
Bergarako alkatea
EL DIARIO VASCO

Atsedeen zentrua
LOKARTU

Koltxoi-Denda

Bideberri z/g. ☎ 76 05 01

ZUBIAURRE

AROZTEGIA

- Sarrerako eta barruko atekak
- Horma armairuak • Tarimak
- Egurrezko eta PVCzko leihoak
- Era guztietako arotz lanak

Zubiaurre, 2. 76 15 14 / 76 35 73

ELEKTRO

ARENAZA C.B.

Montaje elektrikoak,
automatizazioak, e.a.

San Lorentzo 19,
Tfnua: 76 03 17 - 76 03 43



LUNAS DE HIEL

Larunbata: 22.30.
Igandea: 17.00., 19.30 eta
22.15.
Astelehena: 19.30.



**LOS BLANCOS NO LA
SABEN METER**

Ostirala: 22.30.
Larunbata: 17.00, 19.30.



**EL MAESTRO DE
ESGRIMA**

Asteazkena: 19.30.

Zinea

▼▼ Roman

Polanskiren azken filmak zeresan ugari eman du azken hilabeteotan. **Peter Coyote** eta Polanskiren laguna den **Emmanuelle Seignerek** protagonizatutako istorio honetan sexu erlazioak ekar ditzakeen arriskuak kontatzen zaizkigu.

▼▼ Saskibaloia eta sexoa nahasten dituen komedia honek arrakasta handia izan du Estatu Batuetan. Laguntasuna, amodioa eta diruari buruzko erreflexio honetan ez dira akzioa eta musika falta. **Ron Shelton**ek idatzi eta zuzendutako filma.

▼▼ **Pedro Oleak** zuzendutako filme honek, kritika onak jaso zituen azken Donostiako Zine Jaialdian, nahiz eta saririk ez jaso. **Arturo Perez Reverte** kazetariaren nobelan oinarriturik, 1.868.eko Madrilen kokatzen da eta **Omero Antonutti** eta **Assumpta Serna** dira erreparto buruan.

Erakusketak

▼ **29 margolari.** Ortonovora eramandako koadroak ikusteko aukera izango da ostiraletik, hilak 18, urtarrilaren 3ra arte Kultur Etxeko erakusgelan.

▼ **Altunaren** estudioko margolariek beren lanak ikusgai dituzte Aretxebaletako Kultur Etxean.

Farmaziak

▼ **Larunbata 19:**

Camacho/Español (Arrasaten, gauez)

▼ **Igandea 20:**

Camacho/Corcuera.

▼ **Astelehena 21:**

Puy/Irizar.

▼ **Asteartea 22:**

Guallar/Amezua.

▼ **Asteazkena 23:**

Estella/Ruiz.

▼ **Osteguna 24:**

Mozos/Morales.

▼ **Ostirala 25:**

Camacho/Español.

Ogia

▼ **Igandea 20:** Ogizun.

ZUBIETA

elektragintza

- ✓ Motorren bobinak eta
- ✓ Era guztietako instalakuntzak

Kruz Gallastegi, 2 behea
Tfnoa: 76 23 48

ZABALETA ERROTULOAK



Mota guztietako errotuloak.
Fatxadak, eskaparatek...

Amilaga (Gasolinera ondoan) Tfnoa: 76 57 34

Ikuskizunak

▼ **KOBOK** dultzaineroen emalaldia, txalaparta eta etxaflero jaurtiketa, eta trikitilariak ostiralean, hilak 18, 19.30etan EHEko tabernan.

▼ **Ekekei** taldearen giñolezko antzerkia larunbatean, hilak 19, 19.00etan Plazan. Bergarako Amnistiaren Aldeko Komiteak antolatuta.

▼ **Ehun kilo, Brankan eta Amorru** rock taldeak ostiralean, EHEko tabernan 22.30etan.

Kirolak

▼ Futbola:

• **Bergara-Miren Biotza** (2. mailako errejionala). **Larunbatean** 15.30etan Ipintzan.

• **Bergara-Lengokoak** (1. go mailako jubenilak). **Larunbatean** 17.30etan.

• **Bergara-Idiazabal** (1. go mailako kadeteak). **Igandean** 11.30etan.

• **Bergara-Kilimon** (preferente maila). **Igandean** 15.30etan Agorrosinen.

▼ Saskibaloia:

• **Bergara-Cantabria** (senior gizonak). **Larunbatean** 18.30etan.

• **Bergara-Arrasate B** (kadete neskek), **igandean** 10.30etan.

Aukeran

▼▼ **Gabonetako kontzertuak** amaiera emango dio larunbatean aurtengo *Udazken Kulturalaren* edizioari. Bertan, Udal Musika Banda, Aritzeta abesbatza, Orkestra Sinfonikoa eta Bergarako Orfeoia hartuko dute parte. Azken hirurek G.F. Haendelen *Mestas* eskeiniko dute. Larunbatean 20.30etan San Pedron.



• **Bergara-Eskoriatza** (jubenil neskek), **larunbatean** 12.15etan.

▼ Eskubaloia:

• **Bergara-Usurbil** (kadete neskek), **larunbatean** 15.45etan.

• **Bergara-Elgoibar** (jubenil mutilak), **larunbatean** 17.00etan.

▼ Pelota:

• **Bergara-Zumarraga** (alebin, infantil eta kadeteak), **igandean** 11etan Frontoian.

▼ Futbito:

• **Futbito Txapelketa** astebukaeran Kiroldegian.

5

PROFESIONALAK

• Alberdi III.a Badiolaren aurka.

• Gofi eta Zezeaga Urio-naguena eta Tolosaren aurka.

• Gabilondo eta Buentexea Badiola II.a eta Andueza V.aren aurka.

Larunbatean,
16.30etan Udal
Pilotalekuan.

KORTA-ZAR

Txokolategia

Pintxo eta ogibarteko en espezialitatea

Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 62

EZPELETA

etxea

Harizko eta kotoizko goimailako izara eta mantelak

Barrenkale 44 BERGARA



Zaindu natura Eguberrietan ere!

Zuek guztiongana jotzen dugu egun hauetan gure etxea apaintzeko, naturaren aurka egiten ditugun erasoak salatzeke eta ahal dugun neurrian informatu eta sensibilizatzekotan.

Gure etxeak apaintzerako orduan, ez ditugu ezertarako kontuan izaten naturari egiten dizkiogun eraso ekolojikoak. Edo bai?

Gabonetan erabiltzen diren espezieen artean hauek daude:

- Gorostia (*Ilex aquifolium*), aurkitzen den egoera larria dela eta, orain dela zenbait urtetatik hona Lejislazioaren babesa jaso du: 262/1983 Dekretuan basa-floraren espezie mehatxatuei buruzkoa. Bertan, landare hau edo bere zatiren bat, haziak ere bai, kentzea, jasotzea, ebakitzea eta usutrai eta guzti ateratzearen debekua ezartzen da.

- Goroldioak. Goroldio espezie ugari suntsitu egiten dira neguro gure etxe eta dendetan apaingarri moduan erabiltzeko: Belenetan, apaletan, etabar.

- Erratza (*Ruscus aculeatus*). Bere egoera ez da bereziki larria, baina filosofia kontsekuente batetik begiraturik, ezin dugu onartu masiboki mendietatik hartzea gero bi aste pasa ondoren zaborrera botatzeko.

- Izeia (*Pinus abies*). Erosi eta hamabost egun etxean edo lokal ko-

mertzial batetan egon eta gero zaborrera botatzeko ohiturarekin bukatu behar da.

Arazo honen aurrean apaintza alternatibo bat aukera dezakegu:

1- Zenbait zuhaitzen bizkarroia den mihura aukera ona da, mendeetan zehar erabilia.

2- Plastikozko imitazioak:

Hauek gomendatzen dizkizuegu, nahiz eta denok jakin benetakoak ederragoak direla: urtero erabili ditzakegu. Jolas-dendetan eta bazarretan lor daitezke.

3- Adar lehorrak: erraz aurkitzen direnak gure mendietako edozein bazterretan, bakoitzaren gustora apain ditzakegularik.

4- Makila lehorrak edo aroztegietakotablatxoak: hauek ere erraz aurki ditzakegunak. Bildu bezain laister bere apaintzetak ez dauka inolako lan nekezik.

Bergarako Eguzki

1.992 famatua

Baliteke, urteko garai hauetan, honez gero, egutegiak zeuen eskuetan izatea. Mota askotako publizitateak non tabernerako edota baita komertziantek ere beraien produktu eta espezialiteen dituzte.

Gu, egutegi hauetara zuzenduko gara, non ametsetako paisaiak kolo-

reak eta esan beharra daukagu emakume biluzien duin goraipagarriak. Baiina nori ez zaio gustatzen ikusmena gauza ederrez betetzea?

Emakume biluzi bat publizitateko produktu bat bailitzan agertzen da, non guk honi ez diogu inolako zentzurik aurkitzen.

Bai, egutegiak oparitzen dituztenak eta baita jasotzen dituztenen dako ere honetaz erreflexionatzeko oportunitatea daukaguz. Honekin zera esan nahi dugu, emakumea ez dela gizarte ekoizle honetan mugitzen den beste objektu bat besterik ez, baizik eta izaki aske bat da, non egunero publizitate honegatik emakumeak bere pertsonarekiko erasoak jasaten dituzte.

Eskutitz honen helburua denok hainbeste desiro dugun gizarte aske eta berdintsu batean parte hartzea izango zen. Urte berri hau denendako ona izatea opa dizuegu.

Bergarako Egizan

Zuzenketa

Irudi erlojudendari gure barkamenak adierazi nahi dizklogu lerro hauen bidez, joan zen astean San Pedro kaleko dendariak egindako publizitatean agertzen zen dendan zerrandantzarantz jartzea ahaztu zitzaigun eta.

Tiira ba!



Josu Okina

Berrigararak Urtekaria 92 eta Bergara eta Antzuolako Gida kaleratu du

Atzo osteguna aurkeztu zen Kultur Etxean Berrigara astekariak kaleratutako Urtekaria 92 eta Berrigara eta Antzuolako Gida Komertziala.

Koldo Pereira Euskara eta Hezkuntza zinegotzia eta Andoni Larrañaga Udal Kultur Zerbitzueta-koa, Jose Anjel Mikeo JARDUNeko presidentea eta Eneko Azkarate eta Gorka Elorza Berrigarako kideek eman zuten urtekaria eta gidaren berri prentsaurrean.

Alde batetik, urtekariak 2.000 aleko tiradarekin, 140 orrialde izango ditu eta 1.000 pta.tan jarriko da salgai. Bertan, urteko albiste eta pasadizorik nabarmenenak, urteko estatistikak, bi mahai-inguru (*Krisi Industrialaren eragina Bergaran eta Herriko estetika eta ekolojia* gaiei buruzkoak), kirol eta kultur talde guztien argazkiak eta hainbat eritzi-artikulu eta erretratu zahar agertzen dira.

Gidari dagokionez, berriz, doan banatuko diren 3.700 ale kaleratu dira eta, euskara hutsez, Bergara eta Antzuolako 850 helbide eta telefono aurki daitezke behar bezala sailkatuta. Horrez gain, Gidak herritarren-



Ostegunean aurkeztutako urtekaria 1.000 pta.tan salduko da.

tzat interesgarri izan litezkeen beste hainbat telefono eta helbide ekarriko ditu, osasun etxerik, kultur eta kirol taldeenak, garraio zerbitzu- enak, ikastetxe edota alderdi politiko eta sindikatuenak.

Jose Angel Mikeo JAR-

DUNeko presidentea azaldu zuenez, "JARDUNeko komunikabide taldeak 2 urte hauetan egindako lana zoriondu eta proiektu hau posible izatea egiten duten Udala, merkatariak eta bazkideak eskertu beharrean aurkitzen gara".

Koldo Pereirak, berriz, egindako esfortzua goraiatu eta Berrigarako arduradunak ildo beretik jarraitzera animatu ziotuen.

Urtekaria salgai egongo da astebukaeran kalean eta Gabonetan herriko komertzio ezberdinetan.

Non erosi Urtekaria 1.992

- Herriko hainbat denda, taberna, banketxe eta aurrezki kutxatan.
- Kultur Etxean: Berrigaran (24ra arte), liburutegian eta erakusgelan.
- Kalean:
 - Larunbatean (hilak 19): goizean Plazan, Irala kalean, Zurraderoko merkatu txikian eta herriko azokan. Arratsaldean Frontolan (pelota partidu orduan), Irala kalean eta Plazan. Iluntzean San Pedron (Gabonetako kontzertuko orduetan)
 - Igandean (hilak 20): goizean Plazan, Irala kalean eta Frontolan. Arratsaldean, Agorrosinen (futbol partidu orduan), Irala kalean eta Plazan.
 - Ostegunean (hilak 24): Golan alpatutako lekuetan.

Corpa
Bazarra

JOSE CORRIUS

Jostailu sorta bikaina!!

Barrenkale, 13 BERGARA

☎ 76 19 80

SANTOS IRRATI-TB
ELEKTRAGAILUAK - TB
BIDEOA - BIDEO KAMARAK - SOINUA

GABON GARAIAK OFERTA BIKAINAK PREZIORIK
INTERESGARRIENETAN

Mahasterreka, 2 ☎ 76 26 10 BERGARA

□ **Arantzabal**

Pol-Pol Mendizale Taldeak plaka oroi-garri bat eman zion Amaia Arantzabal mendizale bergararrari atzo osteguna, Amaiak eta Josu Bereziartuak UNEDen eskeinitako *Everest eta Cho Oyu 92* diapositiba emandien ondoren.

□ **Kultur Etxea**

Astelenetik aurrera hilak 21 eta Gabonetako jajak amaitu bitartean liburutegia goizez bakarrik izango da zabalik 8etatik ordubaterata. Bideo zerbitzua, berriz, 9etatik ordubaterata zabalduko da.

□ **Atxiloketa**

Asteazken arratsaldean Guardia Zibilak Aritz Egidazu 20 urteko gazte bergarra atxilotu zuen Donostian, Alde Zaharrean burututako operazioaren barruan. 6 atxilotuak Madrilera eramane zituzten.



Motor omenaldia

Igandean Bergarako Udalak eta *Scratch* taldeak omenaldia eskeini zuten aurten naba-mendua diren moto eta kotxe gidari bergararrei. Lehenbizi, goizean zehar, Ramon Ambroi, Anjel Bideluze eta Alex Elizbururen motoak eta Iban Rodriguez, Pablo Irizar eta Aitor Zabaletaren kotxeak ikusgai izan ziren Frontoian, zaletuek makinak gertu gertutik ikusi eta haurrek gure idoloen autografoak eskatzeko aukera izanez.

Ondoren, 100 bat lagun bildu ziren Osintxuko Txuringo jatetxean

omendutako enomenezko bazkarian. Bertan izan ziren, besteak beste, Victoriano Gallastegi alkatea, Andoni Larrañaga eta Koldo Pereira zinegotziak, Ricardo Murillo *Scratch* taldeko presidentea, Andres Vilariño gidaria eta Europako Mendi Txapelduna, Bernard Tramond Renault etxeko konpetizio arduraduna eta Iñaki Ugarteburu Udal Kirol Zerbitzuko arduraduna. Alkateak gidarien merituek gorripatu eta bere sorpresa ere azaldu zuen Bergaran motor munduan lortutako maila gorenaz.

Logotipo lehiaketa

Udaleko Euskara Zerbitzuak logotipoa sortzeko lehiaketaren oinarriak kaleratu ditu. Bergaran jaio edo bizi den edonork har dezake parte. Lanak DIN A4 tamainako kartulina batean aurkeztu beharko dira eta edozein teknika erabili ahal izango da baina kolore bakarra urdina izan beharko da. Bestalde, logotipoan "*Euskara Zerbitzua*" letrak agertu beharko dira eta lanean izenburua bakarrik agertuko da (beste sobre baten barruan egilearen datuak eta azalean lanaren izenburua). Irabazleak 50.000 pta.ko saria jasoko du eta saria eman gabe ere gelditu ahal izango da. Lanak Udaleko Euskara Zerbitzuan (Irizar Jauregian) entregatu beharko dira urtarrilaren 15a baino lehen.

Izarra
elektragintza 
Carmelo Aranguren Unamuno

Tailerra: Zubieta 10 behea
BERGARA ☎ 76 54 10
Etxea: ☎ 76 19 99 / 76 10 60

Pepelu

Ileapaindegia
Zurradero 2, Behea.
Tfnoa: 76 43 07

UDAZKEN KULTURALA

GABONETAKO KONTZERTUA

**Udal Musika Banda
Aritzeta Abesbatza
Orkestra Sinfonikoa
Bergarako Orfeoia**

Abenduak 19, Larunbata
Arratsaldeko 8etan, San Pedro Parrokian



Kirola eta argazkia

Joan den larunbatean Udal Kirol Zerbitzuak eta Pol-Pol Argazki Taldeak antolatutako Kirol Argazkien II. Lehiaketako sariak banatu ziren Kultur Etxean.

Goian duzuen argazkiak ez zuen inolako saririk jaso baina sarituak zuenganatzeko ekarri dugu argitara: Cristobal Burgos (lehen saria zuribeltzean), Koldo Galbez (bigarrena), Juan Tabares bergararrak jaso zuen hirugarrena eta Benito Canterok lokal onenarena. Koloretan, berriz, Enrique Ruiz de Erenchun durangarra izan zen ira-

bazlea, Alfonso Cruz bigarren geratu zen, Javier Ruiz de Larrinaga hirugarrena eta lokal onenaren saria Dani Santosek eskuratu zuen. Guztiek, trofeo bana eta 20.000, 15.000 eta 10.000 pt.ako sariak jaso zituzten.

Era berean, Iñaki Ugarteburu Udal Kirol Zerbitzuko arduradunak "lehiaketa bonetan ikusitako maila eta 2 ediziotan izandako partaidea ikusirik", datorren urtean edizio berri bat antolatzeko asmoa azaldu eta sarituak ildo beretik jarraitzera gonbidatu zitu.

Txinpartak

✓ **Pln-Pong** txapelketa jokatu da Igerilekuetako tabernan datozen abenduaren 26 eta 27an arratsaldeko 4retan. Interesatuak Aldoka Maldokan eta Igerilekuetako tabernan eman dezakete izena.

✓ **Igerilekuak** itxita egongo dira larunbatean, hilak 19, Euskadiko Igerilari Konpletorenaren Txapelketa jokatu baita bertan.

✓ **Bergarako Amnistiaren Aldeko Komiteak** Martutenera martxa antolatu du iganderako, abenduak 20.

✓ **Eguzkik** dei egiten du larunbatean, hilak 19, Iruñean izango den Itoizko urtegiaren aurkako manifestaziora joateko.

✓ **Libe Txintxurreta** bergararrak 3. saria lortu du Soraluzeko Argazki Rallyan.

✓ **Senideak** dei egiten du datorren ostegunean, hilak 24, arratsaldeko 7 t'erdietan Plazan egingo den enkarteladan parte hartzeko.

✓ **Jon Idigoras eta Jose Mari Olarrak** presoan egoerari buruzko hitzaldia emango dute larunbatean, hilak 19, arratsaldeko 7etan Arrasateko enparantzan.

anezka

Udazkenerako oihalak
eta lenzeria

Espolola 8, Tfnoa: 76 59 25

PEÑALBA

Irala 1, Tfnoa: 76 10 49
BERGARA

Loteria
Oparigaiak

MUGICA

Goxotegia

pastelak,
errellenoak,
tostoiak,
tartak...

Artekale, 3
76 10 34

MAKAILO

Makailau
kazuelak
gertatzen ditugu
Ibargarai 15

ETXEA

IGARZA

MERZERIA
LENZERIA

D. IRALA 5
Tfnoa: 76 24 88 BERGARA

ZAIAZKO

Telesforo Aranzadi, 3 ☎ 76 01 66



ANTENA
PARABOLIKOAK

BIDOKLUBA

Alkilerra,
100 pzta.

Panasonic

TELEBISTA PARAILUAK

Technics

HI-FI SISTEMAK

AKAI


INPORTAZIOKO
COMPACT DISC-ak

Nintendo

JATORRIZKO BIDEO KONTSQLAK,
JOKU PILO ETA GUZTI

BIDEO KAMARAK
TELEBISTA APARAILUAK
BIDEOAK

Gabon hauetan eguzkirako betaurrekoak oparitu...!!



Ray-Ban®

Way Faver Mod.
Tarifako Prezioa : 11.300

J. Larrañaga :
6.400 pta

Way Faver Max Mod.
Tarifako Prezioa : 21.200

J. Larrañaga :
14.500 pta

MULTIOPTICAS

J. Larrañaga
OPTIKA

Ibargarai, 16 - Tel. 76 15 75 - BERGARA
Juan Carlos Guerra, 1 - Tel. 79 29 95 - ARRASATE
Plaza J.M. Barandiaran - Tel. 88 99 88 - ORDIZIA

MULTIOPTICAS taldeko bakarrak
DEBA eskualde eta GOIHERRIrako

AIZE-PE ELKARTEA

Toki-Ederreko elkarte

Aize-Pe elkartearen sortzean ez omen zen inolako arrazoi berezirik egon. Laguntalde pare bat elkartu eta euren arteko sortze bat izan omen zen, gero poliki-poliki jende gehiago joan delarik sartzan.

Aize-Pe elkartearen 70 bazkide hauen batzbesteko adina 45-50 urtetakoa da. Bazkide gehienak nagusiak dira. Gazteak orain ari omen dira sartzan, batzbesteko adina jeisten delarik.

Elkarte honetan edadetu ugari dagoenez, ezinezkoa gertatzen zaie jubilatuek kuotarik ez ordaintzea. Arazo hau konpontzeko pentsatu zen jubilatuek ipini eta bazkide berriak onartzea, baina atzera egin zuten lokala nahiko txikia de-

lako jende gehiago onartu ahal izateko. Hala ere, 7 edo 8 daude sartzeko listan zai.

Diruak

Faltak direla eta nahiko berezia de Aize-Pe elkarte. Elkarte honetan ez dago faltarik. Hau lortzeko, astero kontuak egiten dituen bodegero bat dago. Bestalde, joan zen urtean ia 3.000.000 pzta batu zuten. Kontsumoa mantendu egiten omen da



Bazkide edadetu ugari dago Aize-pen.

urtero.

Elkarteak ere parte hartzen du herriko ekin-tzetan. Honela, Toki Ederreko jaietan auzoko jubilatuei luntxa ematea, eta haurren topaketak, haurren egunean, San Miguel Pe, Batzokia eta Gorlarekin batera, besteak beste. Beraiek ere

ospatzen dute beraien eguna junta egunean aforia egiten dutelarik, eta urtero irteera bat gertatuz.

Elkarteak momentu honetan ez du proiektu berezirik, nahiz eta beti izaten duten obraren bat egiteko. Dena den proiektu haundiak egiteko lokal nahiko txikia da Aize-Pe elkartearena.

Aize-Pe elkarte bazkide gehien artean kantatzeko zaletasuna dago, eta abesten duen jende asko da bazkide elkartearen.

Ainboa Lete

FITXA TEKNIKO

SORTU: 1.976.eko uztailaren 10ean.

BAZKIDEAK: 70.

HELBIDEA: Artzamendi 6.

PRESIDENTEA: Jose Maria Aldanondo.

ELKARTEAREN EGUNA: Junta Orokor eguna.

URTEKO KUOTA: 12.000 pzta.

FERNANDEZ



**Oihal puskak
Oihalak**

San Antonio 3
Tfnoa: 76 22 93

Ibargaral 2
Tfnoa: 76 53 22

Kiroldegiko Taberna



Labegaraleta Tfnoa: 76 56 41

REMENTERIA

Altzariak

Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguak
Artekale 6, Tfnoa: 76 13 29

TOKI-ONA

Bodegoia-Taberna

Egunerako janariak / Txikitxizatzak
Kazalatzak / Txabierrak

Matxiategi, 1 ☎ 76 39 53

EGUREN GESTORIA

Maria Pilar Eguren Diez

Kolegiatutako administrazio gestorea

Simon Arrieta enparantza 3, behea.

☎ 76 21 65 / 76 24 45

TELKAR

PHILLIPS SONY

ZERBITZU TEKNIKO

IBARGARAI, 2 ☎ 76 27 11
BERGARA

Loteria: Gabonetako Olentzeroa?

Pilar Mujika

Loteria saltzailea

"Zenbaki bajuak ez dira batere saltzen"

- Urtean zehar zenbat loteria saltzen duzue?

- Kopurua ez dizut esango, baina aurten loteria salmentak asko jeitsi dira. Beste urteetan Gabonak baino 15 egun lehenago loteria guztia ia salduta zegoen, baina aurten loteria ugari galditzen zaigu saltzeko. Niretzat nahiko arraroa da, beste leku batzuetan loteria salmentek gora egin dute eta. Baina honek ez du esan nahi jendeak loterian gutxiago jokatzen duenik, jendeak loteria kanpotik ekartzen du (Bilbo, Bartzelona, Madril) eta.

- Noiz saldu duzu loteria gehien?

- Duela 5 urte «gordua» tokatu zen Bergaran eta honek bere eragina izan zuen loteria saltzeko orduan. Gogoratzen dut 400miloi tokatu zirela, gainera oso banatuak zeuden eta hori Bergaran asko igarri zen, urte hartan kotxe salmentak ikaragarri igo ziren.

- Ze jende motak erosten du loteria?

- Loteria mota guztietako jendeak erosten du. Gazteek bonoloto, pri-

mitiba eta horrelakoak nahiago dituzte. Emakumeak loteriazale amorratuak dira, baina ez dago loteria jokatzen duen pertsona mota finkorik.

- Zenbakiak aukeratzeko orduan badago jarrera berezirik?

- Zenbakiekin jendea oso berezia da. Azkenaldian 9a modan dago, orainarte loteriazaleen zenbakirik gogokoena 5a eta 7a ziren, baina orain 9an bukatutako zenbakiak eskuetatik kentzen dizkigute. Ostera zenbaki baxuak ez dira batere saltzen.


- Noiz hasi zinen loteria saltzen?

- 15 urte daramatzat loteria saltzen, Bergaran bi administrazio daude, nirea 2.ena eta plazakoa. Plazakoa Bergarako administraziorik zaharrena da.

- Zuretzat, zer suposatuko luke zure administrazioan loteria tokatzeak?

- Niri loteria tokatu ez arren loteria Bergaran tokatzen denean asko pozten naiz. Loteria Bergaran tokatzeak herriarentzat asko suposatzen du eta.

- Jendeak urte osoan



Pilar Mujika loteria saltzailea.

zehar numero batera ala gehiagotara jokatzen du?

- Badaude loteriazale batzuk urtetan numero berdinerak jokatzen dutenak, hauei astero gorde behar dizkiet zenbakiak eta kasualidadez zenbakia ez badiet gordetzen asko haserretzen dira. Baina normalean loteria erosten duenak ez du numero finko batera jokatzen.

- Zerbait berezirik egiten duzu zure administrazioan loteria tokatzeko?

- Normalean ez, baina behin gogoratzen dut astekari batetan irakurri nuela administrazioan San Pankrazio bat eta perexila jarrita loteria toka-

tzen zela, nik perexil sorta handi bat erosi eta proba egin nuen... uste dut urte hartan ez zela ezer tokatu.

- Bukatzeko, non tokatuko da loteria?

- Bergaran tokatuko da, Bilbotik eta Madrildik azti batzuk deitu didate, aurtengo «gordua» Bergaran tokatuko dela esanez. Baina azti hauek gehienetan ez dute asmatzen, gogoratzen dut duela 2 urte Ibizatik deitu zidatela zenbaki bat eskatzen, zenbaki horrek «gordua» izateko aukera asko bait zituen. Nik zenbakia ere erosi nuen zerbait tokatuko zitzaidalakoan, baina botatakoa ere ez zitzaidan tokatu.

Eusebio Txintxurreta

Tabernaria

"Loterian fede haundiz jokatzan dut"

- Egia al da azti batek esan duela zuk saltzen duzun zenbakia tokatuko dela?

- Bai Bilboko «bidente» batek Radio Euskadin esan zuen aurtengo "gordua" nik saltzen dudan 38.621 zenbakia izango dela. Gero deitu dute Madrildik eta zenbakia eroatera etorri dira Durangotik, Beasaindik, Azpeititik... alde guztietatik.

- Ba al du zerbait berezirik zenbaki horrek?

- Bai, zenbaki hau tabernan urte osoan zehar

daukagu, zenbakia emazteak eta biok aukeratu dugu eta gure bezeroek urte osoan zehar eros dezakete. Gehiago esango dizut, zenbaki hau orain dela 3 urte taberna zabaldu genuenetik daukagu.

- Oraindik erosi liteke txartelik?

- Ez, zenbaki osoa saldu dut, 3.150.000 pzta saldu ditut. Guztia 15 egunetan saldu da. Izan dira partizipazioak 1000 pezetatan salduak, miloi eta erdiño partizipazioak eta 1.150.000tatan dezi-



Eusebio eta Arantxa Laskurain 38.621 zenbakiarekin.

moak.

- Tokatu al zaizu noizbait loteria?

- Bai oraintxe 5 urte tokatu zitzaidan, lehena Bergaran eta bigarrena Arrasaten. Baina ez taberna lagatzeko lain.

- Aztiaren kontua ez zen izango zure asma-kizuna?

- Ez horixe! Nik ez daukat balorerik horre-

lako gauza bat egiteko (tabernan zegoen batek, txantxetan, ideia berea zela zioen)

- Zure ustez zenbakia tokatuko da?

- Ezin daiteke esan ziur tokatuko denik, baina ni oso fededuna naiz, gainera 3 urtetan zenbaki honetara jokatzan ari naiz eta ez orain azti honek esan duelako.

HERRAN ETXEA

EZ ZAITZALA ZORATU "KAJA"K,
BEGIRATU ONDO BARRUA

PREZIOZ

BERDINIK GABEA

SALDU OSTEKO ZERBITZUZ

140.000 pzta. Kontsulta
itzazu ordainketa
moduak. 38 hilabetera
arte.

MHC 500
SONY ekipoa
+ 10.000
pzta.



Tipografia huts batengatik izan ezik eta generoa bukatu arte.

☎ 76 12 22

Foto Sistema

ARGAZKIAK ORDUBETEAN

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, ☎ 76 00 50

Badaukazu loterian jokatzeko ohiturarik?



Loli Ibarguren
38 urte, langilea

Apurtxo bat normalean bai. Lantegian norbaitek beti eskeintzen dizu ta...



Jose Mari Arriaran
27 urte, tabernaria

Ez. Erregalatutakoa bai baina bestela ez. Gainera ez daukat tokatzeko itxaropenik. Dirua botatzea da.



**ETXE-
-AUNDI**

**Negoio bazkariak
Ezkontzak
Banketeak**

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI



Antonio Lugarizaristi
71 urte, jubilatua

Ohitura gutxi. Itsuena, DYA, Gurutze Gorria eta horrelakoetan bakarrik, zedozer laguntzeko.



Angeles Tartas
54 urte, dendaria

Oso gutxi, ia ezer ez. Ez naiz loteria zalea eta jendeak gehiegi jokutzen duela uste dut. Neri ez zait gustatzen.

TOKI-EDER Taberna

Pintxoak eta eguneko bazkariak

Artzamendi, Tfnoa: 76 51 84

GURIDI Altzariak

Era guztietako altzariak

Artekale 8, Tfnoa: 76 31 02

SUBIJATI


Gazteentzako moda

Irizar, 1 ☎ 76 42 41

URKIOLA

Gizon eta emakumezkoen moda

Bidekurutzeta 42, Tfnoa: 76 16 48 BERGARA



Zorionekoak bakegileak

Bake faltaz kezkaturik bizi gara. Bake bila, bake eske dabil gure Herria, denen ahotan dagoen hitza da.

Gure Elizbarrutiak ere bere helburu nagusienetako bat egin du bere Herriaren baketzea eta hori bideratzen, berak ahal duen neurrian laguntzea. Asmo honekin ipini zuen orain amaitzear gauden "grazi, bihotz-berritze eta baketze" aldi berezi hau.

Eta 1.991ko abenduaren 1ean "Zorionekoak bakegileak" izeneko Gotzai Idazkiarekin eman zitzaion hasiera. Eta Eguberri egunarekin eman nahi da bukaera.

Larunbatean, abenduaren 19an, Oñatitik Arantzazurako bakearen aldeko igoaldia ospatuko da. Ibilaldi honek hau du bere helburu: Arantzazuko Ama Mariari eskatzea, iritsi diezagula Jaungoikoagandik Bakearen dohaina.

Aldi berean, sendotu egin nahi dugu gure baitan, bihotz-berritze bidean aurrera egiteko gure borondatea, pausoak eman ahal izateko justiziaren, senidarteko solidaritzaren eta maitasunaren alorrean. Eta gainera erabaki bat hartuko dugu: baketzera eramango gaituzten ezaugarri eta ekintza eraginkorrak betetzeko erabakia.

Xabier Zubizarreta



Laguntza!!

Beste herrialdeei eskeini diezaiekegun laguntzari buruz pentsatzen dihardudala, bururatzen zaizkit lurrean egin daitezken gauza zoragarriak baldin eta benetan gogoz hartzen baditugu.

Ba ez. Duela denbora asko herri horien jabe egin ginen; esplotatuz, esklabizatuz eta fisikoki eta espiritualki ahalmenik gabe utziz. Eta orain, gaizki daudenean, belarrietaraino armaturiko ez dakit zenbat mila pertsona bidaltzen ditugu eta ondorioz berriz ere herri horien jabe egiten gara.

Gaur egun hilketak burutzeko dauden bitartekorik onenak eta puntakoan erabiltzen ikustea harrigarria da. Zorionak behin eta berriro gizasemeoi eta bereziki "aurreratuak" deitzen garenoi. Berriz ere jakinduriaz betetako erabaki bat hartu dute. Nire aldetik ez dute baimenik inora joateko, beraien etxera ezik.

Benetan nahi izan ezker, gaur egun, sortu daitekeen edozein arazori aurre egiteko baliabideak ditugu, baina indarkeriarik gabe.

Pelikula honen bukaera iritsi arte URTE BERRI ON!

Xabier Azkarate

PRiMi

- Mariskoak, arrain fresko eta izotuak .
- Etxerainoko zerbitzua

Merkatuan Tfnoa: 76 15 90
San Antonion Tfnoa: 76 21 08
Matxiategin Tfnoa: 76 21 91

A
R
R
A
N
O



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA

LILURA

EDERTZE INSTITUTUA

Edertasuna osasuna bezalakoxea da.
Bakoitzarena banan-banan zaindu beharra dago.
Utzi ezazu benetako espezialisten eskuetan.



Bidekurutzeta 7,

☎ 76 31 71

BERGARA

Beheko Taberna

Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak.

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74



- Fotokopiak koloretan
- Publizitadedun kamisetak
- Oihal inprimaketak

AKORT

San Lorenzo, 7
behea. Tel. 76 50 39

KAILASH ZENTRO ESOTERIKOA

Parasikologi Zientzien Instituto
Hispano Amerikarrean
diplomatutako profesionalak


Tarota • Hipnosia • Erresonantzia
Tfnoa: 76 01 31 (Iris)



ITXASMENDI

Taberna

Barrenkale 36
Tfnoa: 76 50 64
BERGARA



□ Kontu kontari

Astelehen goizean Virginia Imaz angiozartarra Bergarako Kultur Etxean izan zen Aranzadi Ikastolako haurrei ipuinak kontatzen. Gipuzkoa osoko herrietan ari dira Virginia eta bere lagunak jiratxo bat burutzen eta pasa den egunean argi utzi zuten imajinazioa ez zaiela falta haurrengana heltzeko. Guztiak txundituta geratu ziren entzun eta ikusitakoarekin eta literatura modu erakargarriago batean aurkezteko biderik badagoela argi utzi zuten.



□ 1.969.ekoak

Larunbatean 1.969an jaiotako eta Aranzadi Ikastolan elkarrekin ibilitakoek, orduko garaia gogoratu eta berriz ere lagunekin elkartzeko asmoz, afaria izan zuten Gaspar Jatetxean. Guztira, 50 bat lagun bildu ziren eta izango zuten bai zer kontatu, jadanik 9 urte pasa baitira Ikastola utzi zutenetik. Gauza mordo bat aldatuko ziren orduetik... eta luzaroan egingo zuten berba eta juerga. Hoixe baietz!!

ARRASATEARRA

Gure berezitasuna bazkariak.
Eguneko menua daukagu.

Taberna

Zubiaurre 22, Tfnoa: 76 20 19 BERGARA



□ Antonio Campos Berrigarán

Pasa den ostegunean Antonio Campos Ikastolen Federazioko presidente eta Kutxako Kultur Ekintzako ordezkaria bisitari izan genuen Berrigarán. Luis Abajo zinegotzia eta Rufina Olasagasti Kultur Jestorearen laguntzaz, Kultur Etxean izan zen Ortonovon izan ziren bergarar margolarirekin antolatua nahi den erakusketa ibiltaria zehazteko eta, bide batez, gure erredakziora hurbildu zen Berrigararen funtzionamendua gertu gertutik jakiteko asmoz.




□ Berrigarara eskursioa

Bisitekin jarraituz, Osintxuko Aranzadi Ikastolako haurrak ere Berrigarán izan genituen astelehen goizean. Astea alaitu hasteko, goizeko lehen ordutik prest ziren zarata ateratzeko baina Karmele Gisasola andereñoak eta guk eman genizkien azalpenak ere formal-formal jarraitu zituztela esan behar. Ordenagailuenganako sekulako interesa azaldu eta kamara aurrean jartzeko ez zuten inongo lotsarik izan.

Zertan dihardute ba?

MARIAREN LAGUNDIA



Jose Anjel Mikeo irakasleak zuzendu eta Sonia Laskurain, Ainara Maortua eta Ester Ortiz de Zaratek aurkeztutako "Gatzagatik itsasoraino: jalo eta hil" lanak 2. saria lortu du Jose Arizmendiarrera sarietan.

MIGUEL ANGEL MUELA



Xake eta Zaleak taldeetako presidentea Euskal Xake Federazioko presidente berraukeratu dute. Era berean, autonomikoetako presidenteen ordezkari izendatu zuen Espainiako Federazioak.

Artekale, 15
behea.
BERGARA
☎ 76 58 86



- SUKALDEA
- ORMA-ARMAIRUAK
- NEURRIRA EGINDAKO ALTZARIAK
- ATEAK-LEHIOAK

MINER Ardo onak,
ardoa jakina

Biltegia: Tfnoa: 76 59 89 BERGARA

Umore giroan

San Pedro pistola erosten

zerura bialtzeko...

Elgoibarko "San Pedro" fabrikatik deitxu dabe telefonoz Eibarrera.

- Eibarko STAR pistola fabrikia al da? Ara emen, "San Pedro" k pistolak erostia nai genduke.

- Baiña, zuek be bai?
- Bai, eun pistola biar doguz.

- Ta zeñekin eta zelan bialdu biar jatsuez?

- Sabinekin.

Telefonuak ifoiz izaten ditxuan zarategaitxik edo, ez ze ben ondo entzun Sabin errekadistian izena.

- Zeñekin esan dozu?
- Sabinekin.
- Gagarinekin?
- Bai, orixe da gure errekadistia.

Ta an geratu zan "pedidua". Eztakigu zelan arreglau ziran pistolak

Plaentxiako Pope eta Tejerua

Tejerua eta Pope oso lagunak ziran, naiz bata liberala eta bestia karlistia izan. Juan dira bixak bein batian Ezozira letañietan. An ziar duen abadiak kantuan:

- Ab omni malo, libera nos Domine. Propitius esto, libera nos Domine!

Tejeruak, ori entzunda, diñotsa Poperi:

- Ze jifuek abadiak?

Eta Popek:

- Liberales, Domine!

- Zer liberales Domine?

Eta orduan hasi zan Tejerua kantuan:

- Karlistas Domine. Karlistas Domine.

Pedro Zelaia

Antzinako kontuak

Arrosarioko Andre Mariaren erretaula (I)

Erretaula nagusia egiteak sortu zuen eragina, Animen Kofradiak jasoa, Arrosario Kofradiara ere iritsi zen; izan ere, bertako partaideek, 1.742an bildurik, alboko erretaula berri bat eraikitzea erabaki zuten nagusiaren maila mantenduz eta erabil zitekeen espaziora egokituz. Uzkuntza desberdinak zeuden horretarako, eta gainera, kofrakideek, norberaren posibilitatearen arabera, beren laguntza eskeiniko zutela espero zen.

Obra hau, Miguel de Irastustak egina zurrerik, Animen erretaula baino soberantzia askoz haundiagoz izan zen burutua. Horren antzera, gorpu bakarra eta atikoa dauzka, baina egituraz konplexuagoa da. Erretaularen erdiko partean nitxo haundi bat agertzen da doselaren itxura hartuz Arrosarioko Andre Mariaren imajina aparta jasotzen duena; honek, bere aldetik, erretaula nagusikoen eskemari jarraitzen dioten zutabeak erakusten ditu alboetan eta hainbat

gorpu irtenduna sortzen du horrela non honen eta ormaren arteko desnibelak bide ematen bait du oinplanoen kurba antzeko bi gune estu ager daitezzen nor bere nitxo duela S. Joakin eta Sta. Anaren imajinekin. Taulamendu altu eta eta mugitu batek bereizten du erdiko gorpu hau atikotik, eta bere erdialdean eten egiten da kurba antzeko frontoi hautsi baten bitartez abiapuntuetan aigeruen bi imajina hartzen dituen. Atikoaren erdiko partean, bestalde, nitxo berri bat azaltzen da alde banatan irtengune haundiko pilastrak dituen, puntuerdiko arkuz eta frontoi konplikatur koroatzen dena eta bere barruan S. Joseren imajina hartzen duena. Mugimendua eta rococo estilokoa den apaindura joria, multzoaren enparaguan bezalaxe, dira erretaula honen ezaugarri nagusiak.

Mari Jose Aranburu
Jesus Gil Massa

IBARGUREN PENTSUAK

Biona pentsuen biltegia.
Bioter produktoak eta haziak.

San Pedro 3, Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

HARATEGIA

ANTIA

URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi, Tfnoa: 76 15 09



GAZTELU

Burdinaki denda

MIntegi 1, Tfnoa: 76 32 48 / 76 34 50 BERGARA

EXLIKUN

BEREZITASUNAK


Fraiskozuri 6, 76 51 62
BERGARA



Zumelaga

JATETXEA

San Antonio 5
BERGARA
76 20 21



ARGAZKI

Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 66



GALDE DEBALDE

BEGOÑA EGIBAR

Justo Garate 1.900.eko dagonillaren 5ean jaio zen bere jaiotetxeko ateburuko plakak gogoratzen duen bezala eta hori zen eskatzen genizuen erantzuna.

BEGOÑA EGIBAR suertatu da aste honetako irabazlea.

ZORIONAK !!

Eta besteok segi jokatzten, helduko da saria jasotzeko eguna eta. Animo!!

HERRAN ETXEA

Sukaldeko altzariak

Matxiategi, 4. 76 37 53




**Elektragailuak, TB,
bideoak, HIFI
aparailuak.**

Matxiategi, 3. 76 12 22




JANTZIDENDA

Barrenkale 24, Tfnoa: 76 10 16



BEGOÑA EGIBARRrek jaso du aste honetan ARGAZKIk emandako saria.

HERRAN ETXEA



Sukaldeko altzariak
Matxiategi, 4. 76 37 53
Elektragarailuak,
TB, bideoak,
HIFI aparailuak.
Matxiategi, 3. 76 12 22

Hurrengo Galde Debaldeko saria
HERRAN ETXEAIk emango du.

Galde Debalde

Aste honetako galdera:

Bergara haunditu ahala hainbat baserri etxe desagertu dira kale berriei lekua lagatzeko. Matxiategi, Zurradero, Torrealde etabar azken hogeitamar urtetan desagertutako etxeak dira, askok ondo asko gogoan dituztenak oraindik. Halako baserri-etxeetariko batek zutik dirau oraindik R. Oiarzabal kalearen bukaeran, Bergaran harriz egin zen lehenengo baserria izan zelarik bere denboran.

Aste honetako galdera hauxe duzue,

Nola du izena ehundaka urteren buruan oraindik zutik dirauen etxe honek?



_____ izena

_____ abizena

_____ telefonoa

OHARRA: Asmatzailerik azalduko ez balitz, hurrengo GALDE DEBALDEN bi sari egongo lirateke

Euskadiko igerilari konpletoena erabakiko da larunbatean Bergaran

□ Futbola

Bergara K.E.ko preferente mailako taldeak garaipen bikaina lortu zuen pasa den igandean Donostiako Danak taldearen aurka. Bergararrek 1 eta 0 bakarrik irabazi irabazi zuten arren gol gehiago sartzeko aukerak izan zituzten. Bergararren gola Jon Andoni Urisabelek sartu zuen, jokaturako partidu bikainari amaiera ezinhobea emanez. Bergararrek Danak taldea baino aurkako gogorragoa epailearen jarreraren izan zuten. Epaileak gol bat ezeztatu zien bergararrei eta gutxienez Bergararen aldeko bi penalti ez zituen eman. Igandean Bergarak Kilimonen aurka jokatu du 15.30etan Agorrosinen.

Bihar goizeko 10etan Bergarako igerilekuan igerilari konpletoenaren Euskadiko txapelketa jokatu da. Txapelketa hau oso berezia izaten da: igerilari bakoitzak tximeleta, bular, bizkar eta estilo libreetan 100m egin beharko ditu, bakoitzak bere lana bete ondoren igerilariei lau probetan eginiko denborak batuko zaizkie eta honek emango du Euskadiko igerilari konpletoaren izena. Jesus Jauregik esan digun moduan *"proba hau oso interesgarria izaten da, igerilariek beraien lana oso denbora gutxian betetzen dute eta"*.

6 bergarar igerilari

Txapelketan 5 Bergarar arituko dira, bost gizonen artean: Iñigo Gallaste-



Igerilari bergararrek aukera asko izango dituzte.

gi (momentu hauetan Euskadiko txapelduna), Kepa Irizar (ranking nagusian 10.ena), Jon Jauregi (ranking nagusian 5.ena), Gorka Gonzalez (ranking nagusian 8.ena) eta Juan De Borja (ranking nagusian 2.ena, baina bere mailan irabazteko aukera askorekin). Emakumezkoetan bergarar

bakarra, ranking nagusian 14. postuan dagoen Nora Olabide izango da. Parte hartzaile zerrendari begiratu guztira 130 igerilari arituko dira, txapelketa goizeko 10etan hasiko da tximeleta eta bizkar estiloekin, arratsaldeko 5etan hasiko direlarik bular eta estilo libreak.

Moto irteera igandean

Zapelaitz motozale elkarteak urte bukaerako moto irteera antolatu du. Irteera motozale guztientzat izango da eta irteera, igandean goizeko 10etan, Zapelaitz tabernan izango da. Irteerak 200 km inguru izango ditu eta Arabako hainbat herririk Bergarako motozaleen trebeziak eta motorren zaratak eukiko dituzte bisitari. Irteerako antolatzaileek egun osoa motorrean ibiltzeko aprobeztatu nahi dute, hori dela eta irteerara joan nahi duenari bokadiloa eramateko eskatzen diote eta ezinbestekoak diren motorra eta kaskoa.



MEMESA

IRIMO

SKF

Arrasate 79 42 22

Artxabaleta



Angiozarko eskolako mutilak (1.969 ingurua)

Orain dela gutxi argitaratu genuen garai berean Angiozarko eskolan zebilen neska-koadrilaren argazkia. Honako honetan mutiko-kuadrila dakargu. Hara zeintzu diren ezkerretik eskumara:

1. ilaran: Jose M^o Alberdi «Txitxi», Jose Luis Jaso, Antonio Santxez, Jose Mari Belar, Pako Alberdi, Jesus M^o Inza, Jose Aitor Belastegi, Poli Jaso, Iñigo Azkarraga, Jose Luis Retolaza.

2. ilaran: Jose Felix Elizburu, Jabier Sarrao, Fernando Larrañaga, Juan Mari Azkarraga, Luis Alberto Elorza, Jose Jabier Loiti, Jose Jabier Mikeo, Jose Luis Errarte, Iosu Aranzabal, Mikel Aranzabal, Ramon Azkarraga.

3. ilaran: Santi Jaso, Alberto Elizburu, Jose M^o Garmendia, Alex Elizburu, Jose Angel Mikeo, Iñaki Santxez, Juan M^o Manzisidor, Juan Carlos Azula, Martin Santxez, Don Ciriaco.

4. ilaran: Juan Luis Arriaran, Lorenzo Sarrao, Carmelo Errarte, Iñaki Garai, Luis M^o Loidi, Jaime Retolaza, Jesus Aldai, Jose Antonio Garitano, Sebastian Alustiza.

Estepan Plazaola
Argazkia: *Mari Jose Inza*



jolas



**GABON HAUETAN...
ZURE OPARI DENDA**

BARRENKALE 27

ETXEBIZITZA

Ganbarak hustu eta garbitzen ditugu.
☎ 76 82 17.

Antzuolan pisua salgai, Ibarra 3, 6. Can.
☎ 76 62 49.

Bergaran herriaren erdialdean ileapaindegia alokatzen da. ☎ 76 16 17.

Harrizurln garajea salgai.
☎ 74 30 55/ 74 43 19

Pisua salgai Bidekurutzetan. (5.000.000).
☎ 76 09 36.

Artekalen pisua salgai
☎ 76 55 63. Gaeuz.

Garajea salgai Santa Marinan. ☎ 76 32 70.

Garajea salgai Martokuan. Erosoa. ☎ 76 46 95.

Pisu amueblatua alokatzen da Bergara erdian.
☎ 12 12 71.

Espaloian garajea salgai
☎ 76 23 27.

Pisua salgai Artzamendin mueblekin edo mueblegabe. ☎ 76 40 82 (Getatik aurrera).

Pisua salgai Martokuan. 80 metro karratu.
☎ 76 14 13 (gaeuz)

Garaje bikoltza alokairuan Burdiñaten.
☎ 76 57 69/76 13 23.

Garajea salgai Torre-kuan. ☎ 76 16 51.

SALDU-EROSI

Kanowey moto bat salgai (49.9 zm3). Egoera onean (90.000 pta.). ☎ 76 12 99.

Marketari lana duen sarrerako altzaria salgai. ☎ 76 35 50 (gaeuz) edota 79 82 10 (egunez).

Collie txakurkumea salgai. Bi hilabete.
☎ 76 64 83 (Xabier).

Oinarrizko Heziketa Orokorra, U.B.I., B.B.B. eta Lanbide Heziketako klase partikularrak ematen ditut.
☎ 76 44 34 (Amaia)

Egurra salgai ekonomizkarako eta beheko surako. ☎ 76 30 16.

Eskiko Koflach-Valuga botak erosiko nituzke.
☎ 76 05 92 (Jose Angel).

Ileapaindegi eta estetika aparailuak salgai. Egoera onean. ☎ 76 32 12.

Bateria klaseak ematen dira.
☎ 76 54 74 (Aitor).

OPEL CORSA Gsi 1.6i SS-AJ kotxea salgai.
☎ 76 63 18/76 44 53.

Petrollozko estufa salgai. ☎ 76 50 05.

Peavy 100 watts bi anpli salgai. Biak 100.000 pezetatatan (bat 60.000).
☎ 76 10 34.

Garbigailua oparitzen dut. ☎ 76 03 73.

Lau MSX joku salgai.
☎ 76 59 47 (David).

Peugeot 205 XL bat salgai. 6 urte SS-W.
☎ (945) 27 92 73 (arratsaldez) / 76 05 23 (gaeuz).

Marketari lana duen sarrerako altzaria salgai.
☎ 76 32 51.

Fisika eta matematikako klaseak (U.B.I. eta B.B.B.) emango nituzke.
☎ 76 31 76.

LANA

Ettxeko lanak egin edota denda baten lan egingo nuke. ☎ 75 24 47.

Neska batek etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke. ☎ 76 45 53.

Emakumezko batek haurrak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke.
☎ 76 36 06 (Marisol).

Ettxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke neska batek ☎ 76 07 26 (Amaia).

Edozein motatako lanak makinaz edo ordenadorez pasatzen ditugu.
☎ 76 17 20 (Laura).

Neska batek etxeko lanak egin edota umeak zainduko lituzke.
☎ 76 60 65 .

Hildakoak

Felicitas Manzano Perez
abenduak 12, 83 urte
Markos Larrea Elustiza
abenduak 13, 80 urte

Jaiotakoak

Eneko Egaña Larrañaga
abenduak 9

AUTOPULLMANS ARABA
Autobusak

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara


ANGIOZAR ☎ 76 55 70



Ziripot

Bidekurutzeta 11, Tfnoa: 76 11 41

Txuringo



Jatetxea

AFARIRAKO IZENA EMATEKO DEITU
TELEFONO HONETARA ☎ 76 48 63

GABON ZAHAR EGUNEKO AFARIA ETA KOTILOIA

MENUA:


- Urdaiazpikoa
- Marisko-koktela tuterako kukulutxuekin
- Hojaldretxo beteak
- Marisko krema
- Legatza labean erreta
- Txerrikumea
- Postrea: turroia, mazapana, etab.
- Etxeko ardoa
- Txanpana
- Kafea, kopa eta puroa
- Musika, afaria alaitzeko

URTE BERRIAREN ETORRERA OSPATZEKO
KOTILOIA, MAHATSA ETA TXANPANAREKIN.

PREZIOA: 7.000 pzta.

ORDUA: Gaueko 9ak.

GRUPO
Image Center



**IKUS ITZAZU ARGAZKIAK
TELEBISTAN !!**

KIÑU

**ADI GABONETAKO
KATALOGOARI!!**

**NIKON
CANON
MINOLTA
OLIMPUS
PENTAX
MINOX
ROLLEI
SONY**

- TRIPODEETAN ESKAINTZA BEREZIAK •
- MARKAKETA BEREZIAK •

Barrenkale, 35 BERGARA ☎ 76 58 05